



Ugarte jauregia (Kantarranako jauregia), amaren familiaren jabetza, Orozkon

Ibilbide literarioa

Blas de Otero

Ibilbide turistikoa bi prestatu dira poeta bizi izan zen euskal lurraldeko tokietan zehar. Bilbo aitaren familiaren sorlekua da, hiri horretan jaio zen eta igaro zuen haurtzarora, eta bertan egin zituen lehen ikasketak (Doña María de Meaztu Eskolan eta Indautxuko Jesuiten Ikastetxean).

Orozko, baserri giroko inguruan, amaren familiaren paisaia idilikoa dugu, bakezko lekua, Pepita Sagarminaga andrea, amama izan zuenaren babesean; Blas de Oterok bere bizi guztian zehar gogora ekarriko baitzuen.



Lehen ibilbidea: BILBOKO HIRIA:

<i>"Mi abuelo paterno era capitán de barco"</i>	<i>"Amo el Nervión"</i>	<i>"Lejos" "Muy lejos" "1923" "La lejanía"</i>	<i>"Parece que llueve"</i>	<i>"Biotz-begietan" "Mademoiselle Isabel" "1923" "Manuel Granero" "Lejos" "El obús de 1937"</i>	<i>"Siete"</i>	Poetaren bustoa
San Agustín kalea, 1	Nerbioi ibaiak	Zazpi Kaleak	Hareatza Boulevard	Hurtado de Amezaga kalea	Recalde zumarkalea	Egaña kalea

Bigarren ibilbidea: OROZKO HARANA:

*"Aldea", "Orozco", "Nadie", "El huerto"
"El nieto", "Ramas de niebla",
"El valle" eta "Vivir para ver"*

Udaletxeko zubia eta plaza. Santa Marina basiliza	Pilotalekua	Ibaia	Ugarte jauregia (Kantarranako jauregia)
--	-------------	-------	--

Blas de Otero Bilbon jaio zen 1916ko martxoaren 15ean. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta, gerra amaitutakoan, lege aholkulari jardun zuen Bizkaiko metalurgia enpresa batean. Alabaina, literaturarako bokazioak bultzaturik, Filosofia eta Letrak ikasten hasi zen Madrilén, geroago ikasketak horiek utzi behar izan bazituen ere. 1952an Espainiatik lehen aldiz ateratu eta urte bete igaro zuen Parisen. Itzultzean Leon eta Gaztelako herrietan barrena ibili zen; hango paisaiak eta jendeak bere olerkietako asko hornituko zituzten.

1956 eta 1959. urteen bitartean Bartzelonan bizi izan zen, eta bertan zela jaso zituen Boscán eta Kritika sariak. Zentsurak bere liburuak biziki gaitzetsi zituen, eta horietako batzuk atzerrian argitaratu behar izan zituen.

1960an zenbait herrialde sozialistetan zehar itzulia egin zuen (Sobietar Batasuna eta Txina). 1964an Kubara bidaiatu bat egin zuen eta hiru urte inguru igaro zituen bertan. 1968an Madrilén kokatu zen.

1979ko ekainaren 29an hil zen Majadadondako etxean, hirurogeita hiru urte zituela, biriketako enbolia baten ondorioz.

Bisitaldiak taldeka egingo dira. Parte hartzeko, helbide honetara jo:

secretaria@fundacionblasdeotero.org

www.fundacionblasdeotero.org

Ibilbidearen prezioa: 10 euro

Prezioaren barruan sartuta dago ibilbidea, liburuak eta kafea